



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

98. INFORMAZIO BULETINA

> 2015ko Martxo



GIPUZKOA



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2015ko Martxoan

NABARMENDU BEHARREKOA

> Euskadiko FEDER 2014-2020 Programa Operatiboaren Jarraipen Batzordea egin dute

Martxoaren 23an, Gasteizen izan da Euskadiko FEDER 2014-2020 Programa Operatiboaren Jarraipen Batzordea.

Egindako bileran, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak parte hartu duten horretan, euskal erakundeetako gainerako ordezkariekin batera, Batzordeko funtzionamenduaren barne-araudiari jarraitu zaio eta Programa Eragilearen garapena eta martxan jartzeari dagozkion arloak ere landu dira, esate baterako, eragiketak aukeratzeko irizpideak, prozedurak, ebaluazioa, komunikazioa...

Jarraipen Batzordea eratu ostean eta ekimen publikoan, Programa ofizialki jarri da martxan. Informazio-ekimen honen helburua komunikabideei, onuradunak izan daitezkeenei eta herritarrei Euskadiko FEDER 2014-2020 Programa Eragile berriaren edukiak eta helburuak ezagutzera ematea da. Ekimenak Europar Batasuneko ordezkarien, Ogasun Ministerioaren eta Administrazio Publikoen, Eusko Jurlaritzaren, Emakunderen eta hiru Foru Aldundiren parte-hartzea izan du.

Informazio gehiago:

http://www.ogasan.ejgv.euskadi.eus/r51-19239/eu/contenidos/informacion/politica_regional/eu_2340/portada_polregi.html



> Eskualdetako Hazkunde Adimentsuko Programa Eragilea jarri da martxan

Euskadiko FEDER 2014-2020 Programa Eragilearekin batera, martxoaren amaieran eskualdeko beste 4 Programa Eragile (Kantabria, Gaztela-Mantxa, Katalunia, Galizia) aurkeztu dira, baita hainbat eskualdetako Hazkunde Adimentsuaren Programa Eragilea ere Espainian.

Hainbat eskualdetako 2014-2020 Hazkunde Adimentsuaren Programa Eragilea, lurralde nazional osoa hartzen duena, hazkunde adimentsuarekin zuzenean lotutako gaikako helburuek mugatzen dute: I+G eta berrikuntza, informazioaren eta komunikazioen teknologiak eta ETE-en lehiakortasuna, bereziki, nazioartekotzea eta krediturako sarbidea.

5.860 milioi euroko aurrez ikusitako aurrekontuarekin, Programa Eragile nazionalak ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza sustatzeko eredu ekonomikoa sortu nahi du. Arreta berezia jartzen zaie ETE-en behar espezifikoari, nazioarteko merkatuetan izan dezaketen hazkundeari eta enpleguaren sorrerari.

Era berean, informazioaren eta komunikazioaren teknologietarako sarbidea eta horien kalitatea hobetze aldera, neurri zehatz batzuk aurrez ikusten dira. Neurri horien artean, abiadura handiko eta abiadura oso handiko banda zabalaren hedapena, enpresek IKTak erabiltzea eta administrazioen, enpresen eta herritarren artean datuen trukaketa elektronikoa ageri dira.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/es/newsroom/news/2015/03/5-regional-spanish-operational-programmes-and-the-national-smart-growth-op-launched-this-week-launched-this-week

http://ec.europa.eu/regional_policy/es/atlas/programmes/2014-2020/Spain/2014es16rfop001

http://www.dgfc.sgpg.meh.es/sitios/dgfc/es-ES/ipr/fcp1420/p/Prog_Op_Plurirregionales/Documents/PO_Crec_Int_Dec_Anex1_Anex2.pdf



> **ELKARREKIN programa Gipuzkoako udalerrien eta beste eskualde batzuetako hirien arteko senidetzea bultzatzeko**

ELKARREKIN programak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kanpo Harremanen eta Turismoaren Zuzendaritza Nagusiak bultzatuta, Gipuzkoako udalerriak animatu eta babestu nahi ditu Gipuzkoako udalerrietako interes sozialak, kulturalak eta ekonomikoak babesten dituzten jarduerak egitera. Gainera, loturak edo interes komunak dituzten beste eskualde edota herrialdeetako udalerrri eta hiriekin harremanak estutu nahi dituzte.

Udalerrien eta hirien batura sustatzeko eta herri eta eskualdeen arteko ahaidetasunak estutzeko pentsatutako ekimena da, ez Europakoak soilik, baizik eta ikuspegi orokorrarekin planteatuta, hirien ahaidetasunaren politika komunitarioarekin batera.

2015eko apirilaren 1ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2015 urterako ELKARREKIN programaren deialdirako oinarriak.

Informazio gehiago:

<https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2015/04/01/c1502918.htm>

> **“Non ikusten duzu Europa Euskadin?” gazteentzako argazki-lehiaketaren edizio berria**

Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza Sailak "Non ikusten duzu Europa Euskadin?" gazteentzako argazki-lehiaketaren 4. edizioa jarri du martxan euskal gazteriaren artean Europar Batasunaren ekarpena zabaltzeko helburuarekin. Horretarako, Euskadiko garapen sozioekonomikorako FEDER funtsak erabiltzen dira.

14 eta 25 urteko Euskadin erroldatutako gazte guztiek parte har dezakete lehiaketan. Nahikoa da argazki bat atera eta lehiaketako Facebookeko profilean argitaratzea. FEDERek edo Europako beste laguntza batzuek finantzazioa eman dioten Euskadiko ekimen edo proiekturen bat erakutsi behar du argazkiak.

Puntuaziorik altuena lortzen duen argazkiak bi pertsonarentzako Bruselara bidaiari jasoko du. Bigarren saria Google Nexus 9 tableta izango da eta hirugarren saria, argazkirik ezagunenari emandakoa (Facebookeko boto gehien), GoPro HERO 4 Silver Edition bideokamera izango da.

Parte hartzeko epea martxoaren 24an hasi da eta apirilaren 27an amaituko da.

Informazio gehiago:

<https://www.facebook.com/feder.ejgv.euskadi.eus>



KOHESIO-POLITIKA

> 40 urte FEDER sortu zela

Duela 40 urte, 1975eko martxoaren 18an, Europako Komunitate Ekonomikoak, 9 Estatu kidek osatzen zutenak, garapenik txikieneko arloetan hazkunde ekonomikoa finantzatzeko konpromisoa hartu zuen. Horretarako, 1.300 milioi kontuko unitateko (euroren aurretik erabiltzen zen unitatea) funtsa gaitu zen. Horren helburua batez ere nekazaritzaren nagusitasunagatik, aldaketa industrialarengatik eta eremu jakin batzuetako azpienplegu estrukturalarengatik sortutako desorekak zuzentzea zen.

Erabaki horrek, hiru urteko probako hasierako aldi moduan zehaztu zenak, Italia hegoaldeko eremurik txiroenak, Frantziako mendebaldea eta hego-mendebaldea, Herbeheretako iparraldea, Alemania Mendebaldeko zatiak eta Erresuma Batuko zati handiak babestu zituen.

Gaur egun Europako Kohesio Politika moduan ezagutzen den horren lehen ekimena zen eta Europa mailan solidaritatea oinarri duen testuinguru politikoa, ekonomikoa eta lurraldekoa osatzen du. 2014-2020 aldirako 351.000 milioi euro baino gehiagoko aurrekontua du.

40 urte geroago, gaur egun, Europako Kohesio Politika hiru funts nagusiren bidez exekutatzen da: Eskualdeko Garapenaren Europako Funtsa (FEDER), Europako Funts Soziala (FSE) eta Kohesio Funtsa (FC). Horiek, Nekazaritza Garapeneko Europako Nekazaritza Funtsarekin (FEADER) eta Europako Itsaso eta Arrantza Funtsarekin (FEMP) batera, Europako Egiturazko eta Inbertsioko Funtsak (EIE Funtsak) osatzen dituzte.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/es/newsroom/news/2015/03/european-regional-development-fund-turns-40



> Arku Atlantikoaren Batzordeak urteko batzarra ospatu du Euskadin

Martxoaren erdi aldera izan zen Bilbon Arku Atlantikoaren Batzordearen urteko batzarra. Euskadi bertako kidea da.

Arku Atlantikoaren Batzordea Europa-CRPMko Itsaso Inguruko Eskualdeetako Konferentziaren laneko 6 batzorde geografikoetako bat da eta Euskadi bertako kidea da. Zehazki, Arku Atlantikoko Batzordea Batasuneko bost estatutako 18 eskualdez dago osatuta: Irlanda, Erresuma Batua, Frantzia, Espainia eta Portugal. Batzordearen zeregina eskualdeko interesak defendatzea da komunitateko instantzien aurrean eta Estatu kideen aurrean. Helburu nagusia kohesio sozialean, ekonomikoan eta lurraldekoan, bateratutako itsas politikan eta garraioaren irisgarritasunean oinarritzen da.

Arku Atlantikoaren ekintza-plana oinarritzko lau lehentasunetan oinarritzen da: enpresa-espirtua eta berrikuntza sustatzea; itsas ingurua eta kosta-ingurua hobetzea, eta irisgarritasuna eta konektagarritasuna hobetzea, baita eskualdea garatzeko eredu iraunkorra eta sozialki bateratzailea sortzea ere. Era berean, ekintza zehatzak hauetan oinarritzen dira: itsaso handian instalazioak garatzean, itsasoko industria tradizionaletan eta sortzen ari direnetan, hezkuntza eta prestakuntza hobetzean eta ikerketa ozeanografikoaren alorrean lankidetzaren sustatzean, betiere, klima-aldaketaren efektuak hobeto ebaluatzeko helburuarekin.

Arku Atlantikoa ekintza-planean zehaztutako inbertsio- eta ikerketa-lehentasunek EBren finantzazioa jaso ahal izateko helburu gisa ezarri da. Ekintza-plana Juncker Planetik etorriko da eta 315.000 miloi euro mobilizatuko ditu. Proiektu horiek energia-eraginkortasunera edo itsas industrietara bidera daitezke.

Informazio gehiago:

<http://www.arcatlantique.org>

<http://www.arcatlantique.org/index.php?act=1,4,1>



> 2015ko Martxo



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



Unión Europea Una manera de hacer Europa

> **Bidasoa Sud Pays Basque Nekazaritza eta Elikaduraren Mugaz Gaindiko Foroaren bigarren edizioa ospatu da**

Otsailaren amaieran ospatu da nekazaritza eta elikaduraren mugaz gaindiko foroaren bigarren edizioa. Ekimena Innov Mugabe 2x2 proiektuaren testuinguruan antolatu da, eta Bidasoa Activa eta Agglomération Sud Pays Basque-k antolatu du mugako eremua ekonomikoki eta sozialki txertatzeko. FEDERek kofinantzatzen du 2007-2013ko POCTEFA Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzaren Programaren bidez.

Ekimenean eremuko tokiko produktuen 70 ekoizle eta banatzaile inguru bildu ziren eta hainbat gai landu zituzten: nekazaritza- eta elikadura-sektorea sustatzeko planak, proiektu eta zerbitzu berritzaileei babesa emateko programak, e-commerce, packaging, marketing eta aurrezki energetikoa nekazaritza eta elikadura sustapenean, beste batzuen artean.

Gonbidatutako hizlarien esku-hartzeen ostean, ekoizleen eta banatzaileen artean networking-eko alde bitako topaketetarako eremua zabaldu zen. Hori aukera bikaina izan zen jendaurrean azaltzeko eta enpresa-lankidetzak berriak sortzeko.

Ekimen osoan eremuko nekazaritza- eta elikadura-ekoizpenaren kalitateari eta aniztasunari buruzko erakusketa bisitatu ahal izan zen.

Informazio gehiago:

<http://www.bidasoa-sudpaysbasque.com/>

http://www.bidasoa-sudpaysbasque.com/fileadmin/images/programa_version_mailing_EUS_BID.pdf



> **URBACT III Europako hirien artean jardunbide egokien ikaskuntza eta trukaketa sustatzen duen programa**

URBACT ikaskuntza eta trukaketako Europako programa da. Hiri-garapen iraunkorra sustatzen du eta Europako hiriei, elkarlanean, hiri-erronka handiagoen aurrean eta zeregin garrantzitsua berretsiz, irtenbideak garatzeko gaitasuna ematen die. Programaren edizio berriak, URBACT III 2014-2020 edizioak, 96,3 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa du eta ekarpenik handiena (% 77) FEDERi dagokio.

Une hauetan, Ekintzen Plangintza Sareetarako proposamenen lehen deialdia zabalik dago 2014-2020 aldirako. Sare hauen helburu nagusia Europako hirien gaitasuna hobetzea izango da hiriko politika iraunkorrak kudeatzeko, eta are zehatzago, hiri-garapen iraunkorreko estrategia txertatuak diseinatzeko ahalmena sendotzeko. Ekintzak Planifikatzeko Sarean parte hartzean, hiriak trukatu egiten dira eta esperientziak, arazoak eta eman daitezkeen irtenbideak partekatzen dituzte. Horrela, hiri-garapen iraunkorrek zerikusia duten erronkak lantzeko ideia berriak sortuko dira.

Dimentsio ekonomikoa, soziala eta ingurunekoa txertatzen duten hirietarako irtenbide praktikoa berritzaileak eta iraunkorrak garatuz eta partekatuz modu aktiboan parte hartzen duten 300 hirik, 29 herrialdek eta 5000 adituk osatzen dute gaur egun URBACT sarea.

Informazio gehiago:

<http://www.urbact.eu/>



> **PLK-k aurrera egin du 2014-2020ko POCTEFA Interreg V-A programa behin betikoz idazten**

Pirinioetako Lan Komunitateak (PLK) aurrera jarraitzen du 2014-2020ko POCTEFA Espainia-Frantzia-Andorra Interreg V A Programa behin betikoz idazten. Programa Eragileak 2014-2020 programazio aldian garatuko den Espainia, Frantzia eta Andorraren arteko mugaz gaindiko lankidetzarako estrategia garatuko du.

2014ko irailean Programaren lehen bertsioa Europako Batzordera bidali zen eta behaketak txertatzeko (abenduan jaso ziren) bi hilabetez lanean gogor aritu ostean PLK-k, Programa Kudeatzeko Agintaria den aldetik, Jarraipen Batzordea egin zuen joan den martxoan Programa Eragilea behin betikoz idazten aurrera egiteko. Bertsio berri hori Europako Batzordera bidaliko da berriz behin betiko onarpena jasotzeko.

PLKren egutegiarekin bat etorritik, datozen hilabeteetan Programa Eragilearen behin betiko onarpena jasotzea espero da eta 2015eko bigarren seihilekoan ofizialki jarriko da martxan.

Informazio gehiago:

<https://www.poctefa.eu/arbol/index.jsp?id=d6c275d5ebd1c3d360465fe70c1e5b7a>



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> **TAIEX REGIO P2P, Europako eskualdeko politikaren inbertsioak hobeto kudeatzeko ezagutza trukatzeko ekimena**

Europako Batzardeak duela gutxi jarri du martxan eskualdeko eta tokiko administrazioei zuzendutako plataforma berria Europako eskualdeko politikaren inbertsioekin lotutako ezagutzak eta jardunbide egokiak trukatzeko. Plataformaren helburua, TAIEX REGIO P2P izendapena duena, Europar Batasuneko inbertsioen erabilera eta kudeaketa hobetzen laguntzea da, betiere, administrazio kudeatzaileen artean informazioa trukatzuz.

TAIEX REGIO P2P plataforma berriaren bidez, hainbat hobekuntza aurrez ikusten dira. Horien artean, esate baterako, hauek daude: adituen trukaketak antolatzeak aukera (epe laburrekoak), baita beste trukaketa batzuk ere, hau da, adituen zereginak, ikasteko eta tailerren bisitak... betiere, Estatu kideetan inbertsio-programen kudeaketaren agintari arduradunek zehaztutako beharrak lantzeko helburuarekin. TAIEX REGIO P2Pk, era berean, informazio-trukaketak berehala gauzatu ahal izatea ahalbidetzen du, azterketa gai zehaztutan oinarrituta, eta adituen trukaketen kalitatea eta ebaluazioa kontrolatzeko hainbat mekanismo txertatuz.

Ekimen hau ekimen zabalago baten parte da, eta ondorioz, 2020 Europa Estrategian ezarritako helburuekin bat dator. Kide diren estatuen eta eskualdeen gaitasun administratiboa sustatu nahi du eta eskualdeko politikaren potentziala guztiz aprobetxatzea du helburu enplegua sortu eta hazkunde iraunkorra bermatzeko..

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/en/policy/how/improving-investment/taiex-regio-peer-2-peer



> Laguntza-sare berria materia energetikoan kohesio-politikaren inbertsioak sustatzeko

Europako Batzordeak laguntza-sare berri bat sortu du energia-sektoreko agintaritza nazionalen artean eta energia-gaiez arduratzen diren kohesio-politikaren kudeaketa-agintaritzetako ordezkarien artean. "Energia eta Kudeaketa Agintaritzak – EMA" izeneko laguntza-sare honek Estatu kide berriei lagundu nahi die Europako Kohesio Politikako funtsak hobeto aprobetxatzeko, betiere, energiarekin zerikusia duten arloak sustatze aldera, hauek esate baterako: energia-eraginkortasuna, energia berriztagarriak eta Smart Grids direlakoak, baita ikerketa eta berrikuntza ere, energia arloan.

2020 Europa Estrategiaren Energia Bateratzeko ekimen adierazgarrian kokatzen den ekimen berria da. Horrekin, karbono-igorpen baxuko ekonomiaranzko bidean aurrera egin nahi da.

Informazio gehiago:

<http://ec.europa.eu/priorities/energy-union/>



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> Zer aurrerabide egin du Europar Batasunak 2020 Europaren helburuei dagokienez? (Eurostat)

Europako Kontseiluak 2010eko ekainean onartutako 2020 Europa Estrategiaren helburua ekonomia adimentsua, iraunkorra eta bateratzailea ezartzea da, enplegu, produktibitate eta kohesio sozialeko maila altuekin. Helburu horiek 2020an lortu beharreko bost helburutan adierazten dira enplegu alorrean, I+Gn, klima- eta energia-aldaketan, hezkuntzan eta txirotasunean.

Argitalpenak kide diren herrialdeen aurrerapena biltzen du helburu bakoitzean. Europar Batasunak helburu orokorrak betetzearekin lotuta herrialdeek egiten duten ekarpenaren ikuspegi orokorra eta aldi berean partikularra eskaintzen du.

Informazio gehiago:

<http://ec.europa.eu/eurostat/documents/2995521/6664132/1-02032015-CP-EN.pdf/e339ff6c-ee5c-4385-9cbc-bce32fbd8d7>

> Eskualdeen Batzordea begirada batean (Europako Eskualdeen Batzordea)

Europako Eskualdeen Batzordearen osaerari eta erantzukizun arloari buruzko oinarritzko informazioa eskaintzen du argitalpenak. Europar Batasuneko maila anitzeko gobernantza-sistemaren mapa zehaztua barne hartzen du.

Informazio gehiago:

<http://cor.europa.eu/en/documentation/brochures/Documents/European%20Committee%20of%20the%20Regions%20at%20a%20glance/2545-leaflet2015-EN.pdf>